Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.**

**Organoa**: Udalbatza.

**Batzarra:** Ohikoa.

**Deialdia**: Lehenengoa.

**Eguna:** 2025.09.25

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

**Zinegotziak:**

Argiñe Ordoki Urkixo and.

Gabriel Txoperena Altzugarai jn.

Uxue Royo Pozueta and.

Eneko Fernandez Maritxalar jn.

Pello Astiz Elverdin jn.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Imanol Goienetxe Maritxalar jn.

**Ez da bertaratu:**

Izaskun Rodriguez Marichalar and.

**Idazkaria**: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

***SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO.***

***Organo:*** *Pleno.*

***Sesión:*** *ordinaria.*

***Convocatoria:*** *primera.*

***Día:*** *25.09.2025.*

***Hora:*** *19:00 horas de la tarde.*

***Lugar:*** *Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.*

***Asistentes***:

***Alcalde:*** *D. Ladis Satrústegui Alzugaray.*

***Concejales:***

*Dña. Argiñe Ordoki Urkixo.*

*D. Gabriel Txoperena Altzugarai.*

*Dña. Uxue Royo Pozueta.*

*D. Eneko Fernández Maritxalar.*

*D. Pello Astiz Elverdin.*

*D. José Luis Echegaray Andueza.*

*Dña. Ione Fagoaga Echarte.*

*D. José María Portu Ochoteco.*

*D. Imanol Goienetxe Maritxalar.*

***No asiste:***

*Dña. Izaskun Rodriguez Marichalar.*

***Secretaria***: *Dña. M. José Larráyoz Ariztegui.*

*En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

*Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:*

**1.-AZKEN BILKUREI DAGOKION AKTEN ONESPENA.**

***1.-APROBACIÓN DE LAS ACTAS CORRESPONDIENTES A LAS ÚLTIMAS SESIONES.***

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu ditu, 2025eko ekainaren 26ko akta, 2025eko uztailaren 31ko akta eta 2025eko irailaren 2ko akta.

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 26 de junio de 2025, el día 31 de julio de 2025 y el día 2 de septiembre de 2025..*

**2.- ALBISTUR KALEKO (NA-4000 ZEHARBIDEA) ZOLADURA ETA SAREAK BERRITZEKO OBREN ESLEIPENA.**

***2.-ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS DE PAVIMENTACIÓN Y RENOVACIÓN DE LAS REDES DE LA CALLE ALBISTUR (TRAVESIA NA-4000) .***

2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran, Lesakako Albistur kaleko (NA-4000 trabesia) zoladura eta sareak berritzeko obrak kontratatzeko espedientea onartzea erabaki zen. Obra hori Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planean sartuta dago.

*En la sesión celebrada el día 27 de febrero de 2025 se acordó aprobar el expediente para la contratación de las obras de pavimentación y renovación de las redes de la calle Albistur (travesia NA-4000) en la localidad de Lesaka, obra incluida en el Plan de Inversiones Locales del Gobierno de Navarra.*

Lizitazioa 2025eko martxoaren 25ean argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian, eta eman gabe geratu da, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

*Publicada la licitación en el Portal de Contratación de Navarra el día 25 de marzo de 2025, la misma queda desierta al no haberse presentado ningún licitador*

2025eko uztailaren 28an, 2292/2025 sarrera-zenbakiarekin, Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.) enpresako Daniel Apellaniz de la Fuente bide, ubide eta portuetako ingeniariaren proiektu tekniko aldatua eta eguneratuari sarrera eman zen.

*Con fecha 28 de julio de 2025, nº de entrada 2292/2025, se ha dado entrada al proyecto técnico modificado y actualizado del ingeniero de caminos, canales y puertos don Daniel Apellaniz de la Fuente, de la empresa Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.)*

2025eko uztailaren 31an egindako Osoko

*En la sesión celebrada el día 31 de julio de*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Bilkuran, Udalbatzak onartu zuen proiektua berria eta aipatutako obrak kontratatzeko espedientea, bai eta kontratua arautuko duten klausula administratiboen agiria ere; izapidetze-prozedura Europar Batasuneko atalasetik beherakoa izango da.

Iragarkia argitaratu zen 2025eko abuztuaren 6an Nafarroako Kontratazio Atarian, proposamenak aurkezteko epea irekiz 2025eko abuztuaren 25arte.

Horretarako ezarritako epean, proposamen bakarra aurkeztu da: SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresarena.

Ikusirik 2025eko irailaren 12ko Kontratazio Mahaiaren akta, Sasoi Eraikuntzak S.L enpresari esleitzea proposamenarekin.

Ikusirik kreditua nahiko dagoela kontratu horretarako 2025. aurrekontuan.

Ikusirik Udal honetako Kontuhartzaileak egindako fiskalizazioa.

Ikusirik kontratatazio arautegiak eskatzen dituen aginduak bete direla.

Ikusirik Sasoi eraikuntzak S.L. aurkeztu duela 2025eko irailaren 22an klausula administratiboen pleguaren 15. puntuan eskatzen dena, esleipena egin aurretik.

Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki du:

1.) Lesakako Albistur kaleko (NA-4000 trabesia) zoladura eta sareak berritzeko obrak esleitzea SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresari (B-31544075 FIZ duena), 682.000,00 €ko

*2025 el Pleno aprobó el nuevo proyecto y el expediente para la contratación de las citadas obras así como el pliego de cláusulas administrativas que ha de regir el contrato, siendo el procedimiento de tramitación el abierto inferior al umbral comunitario.*

*El anuncio fue publicado el día 6 de agosto de 2025 en el Portal de Contratación de Navarra, abriendo un plazo para presentar las proposiciones hasta el día 25 de agosto de 2025.*

*Durante el periodo abierto al efecto establecido se ha presentado una única proposición, la de la empresa: SASOI ERAIKUNTZAK S.L.*

*Vista el acta de la Mesa de Contratación del día 12 de septiembre 2025 con la propuesta de adjudicación a la empresa Sasoi Eraikuntzak S.L.*

*Vista la retención de crédito con cargo al presupuesto del ejercicio 2025 para dicho contrato.*

*Vista la fiscalización emitida por la Intervención de este Ayuntamiento.*

*Considerando que se han observado las prescripciones contempladas en la normativa de contratación.*

*Visto que la empresa Sasoi Eraikuntzak S.L. ha presentado el día 22 de septiembre de 2025 la documentación establecida en el punto 15 del pliego de claúsulas administrativas con carácter previo a la adjudicación definitiva.*

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*1.) Adjudicar las obras de pavimentación y renovación de las redes de la calle Albistur (travesia NA-4000) a la empresa SASOI ERAIKUNTZAK S.L. con CIF B-31544075 en la*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

kantitatean (honi, Balore Erantsiaren gaineko Zergaren %21a jarriko zaio, beraz, 825.220,00 €, BEZ barne dira), bere proposamena, 2025eko uztailaren 31an egindako Osoko Bilkuran onartutako Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.) enpresak egindako proiektua eta baldintza administratibo pleguaren arabera.

*cantidad de 682.000,00 € (a ella se le aplicará el 21% del Impuesto sobre el Valor Añadido, son, por lo tanto, 825.220,00 € IVA incluido), y conforme a su propuesta, al proyecto redactado por la empresa Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.) y al pliego de condiciones administrativas aprobadas al efecto en la sesión celebrada el día 31 de julio de 2025.*

2.) Enpresa esleipendunari jakinaraztea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan adierazitakoaren arabera, ez dela esleipenaren eraginkortasuna etenaldia aplikatuko, eskaintza bakarra aurkeztu delakoz.

*2.) Comunicar a la empresa adjudicataria que, de acuerdo con lo señalado en el artículo 101 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos, la eficacia de la adjudicación no queda suspendida al haberse presentado una única empresa, pudiendo continuar con la tramitación del procedimiento.*

3.) Esleitu zaion enpresari azaldu, kontratua sinatzeko behar diren agiriak ekarri beharko dituela.

*3.) Comunicar a la empresa adjudicataria que deberá aportar la documentación precisa para la firma del contrato.*

4.) Alkateari ahalmena ematea kontratua sinatzeko.

*4.) Facultar al Alcalde para la firma del contrato.*

5.) Sasoi Eraikuntzak enpresari esleipen hau jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta Udalaren web orrian argitaratzea.

*5.) Que se notifique la presente adjudicación a la empresa Sasoi Eraikuntzak S.L. y que sea publicada en el Portal de Contratación de Navarra y en la página web del Ayuntamiento.*

6.) Esleipen hau Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.) enpresari jakinaraztea, obren zuzendaritzaren enpresa esleipenduna den aldetik.

*6.) Que se notifique la presente adjudicación a la empresa Krean S. Coop. (LKS Ingenieria S.Coop.) como empresa adjudicataria de la dirección de las obras.*

7.) Esleipen hau udalaren kontu-hartzailetzari jakinaraztea.

*7.) Que se notifique la presente adjudicación a la Intervención Municipal.*

**3.- LESAKAKO MUSIKA ESKOLA KUDEATZEKO ZERBITZUEN ESLEIPENA.**

***3.- ADJUDICACIÓN DE LOS SERVICIOS PARA LA GESTIÓN DE LA ESCUELA DE MÚSICA DE LESAKA.***

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

2025eko ekainaren 30ean amaitu zen musika-eskola kudeatzeko kontratua. Zerbitzu hori urtebeterako kontratatzea planteatzen da, lau urtera arte luza daitekeena.

2025eko uztailaren 31an egindako Osoko Bikuran erabaki zen zerbitzu hori kontratatzeko espedientea onartzea, bai eta kontratua arautuko duten klausula administratiboen agiria ere; izapidetze-prozedura Europar Batasuneko atalasetik gorakoa izanik, kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuaren kargura eta lizitazio publikoa iragartzea Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Aipatutako iragarkia argitaratu zen 2025eko abuztuaren 14an Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta 2025eko abuztuaren 14an Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Eskaintzak aurkezteko epea honako hau izan zen: 2025eko abuztuaren 15tik 2025eko irailaren 13arte.

Proposamenak aurkezteko irekitako epearen barruan proposamen bakarra aurkeztu da: Tobera Musika Iharduerak S.L.L.

Horretarako onartutako baldintza-agiriaren arabera eratutako kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusi da, eta proposamena zuzena eta behar bezala arrazoitua dela onartu da. Hautatutako lizitatzaileak kontratua esleitzeko onartutako baldintza administratibo eta teknikoen agiriko 15. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ditu. Hala, Tobera Musika Iharduerak SL enpresak

*Con fecha 30 de junio de 2025 finalizó el contrato de la gestión de la escuela de música. Se plantea contratar dicho servicio para un año prorrogable hasta los cuatro años.*

*En sesión celebrada el día 31 de julio de 2025, el Pleno acordó aprobar el expediente para la contratación del citado servicio así como el pliego de claúsulas administrativas que ha de regir el contrato, siendo el procedimiento de tramitación el abierto superior al umbral comunitario, autorizar el gasto correspondiente que comporta el presente contrato, con cargo al vigente presupuesto y anunciar la licitación pública en el Diario Oficial de la Unión Europea y en Portal de Contratación de Navarra.*

*Dicho anuncio se publica en el Diario Oficial de la Unión Europea el día 14 de agosto de 2025 y en el Portal de Contratación de Navarra el día el día 14 de agosto de 2025*

*El plazo que se fijó para presentación de las ofertas fue el siguiente: desde el día 15 de agosto de 2025 hasta el día 13 de septiembre de 2025.*

*Dentro del plazo abierto para la presentación de las proposiciones se ha presentado una única propuesta, la de la empresa Tobera Musika Iharduerak S.L.L.*

*Vista la propuesta formulada por la Mesa de Contratación constituida conforme al pliego aprobado al efecto se estima la misma correcta y debidamente motivada; queda acreditada, por parte del licitador seleccionado, la presentación de la documentación a que se refieren el artículo 15 del pliego de condiciones administrativas y técnicas aprobada para adjudicar el contrato. Así, la*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

2025eko irailaren 25ean (sarrera-erregistroko zk.: 2899/2025) kontratu hau esleitzeko behar diren dokumentuak aurkeztu zituen.

Aho batez, Udalbatzak erabaki du:

1.) TOBERA MUSIKA IHARDUERAK S.L.L. enpresari esleitzea Lesakako musika eskolako kudeaketa zerbitzua, 172.708,92 eurotan (42,60 euro orduko), BEZik gabe, zerga hau ordaintzetik libre dagoelakoz Espainako hezkuntza-sistemako ikasketa-planetan sarturiko gaiak direlako, 2025-2026 ikasturterako, euren proposamenaren arabera eta 2025eko uztailaren 31n Osoko Bilkuran onartutako baldintza pleguari jarraituz.

2.) TOBERA MUSIKA IHARDUERAK S.L.L. enpresari jakinaraztea pleguaren 5. puntua jarraituz, aipatutako prezioa behin behineko dela eta hori behin betikoa izateko ikasturtea hasi baino lehen, eta irailaren 1etik 11ko ikasle-kopuruan izandako aldaketen arabera eman beharreko orduen eta ikasgaien edo disziplinen proposamena Udalari helarazteko eskatzea, berrikus, balora eta onar dezan. Ondorioz, kontratuaren prezioa behin betiko matrikulatzeko epea amaitu ondoren berrikusiko da, ikasturteko urriaren 1a erreferentziatzat hartuta, eta honela egingo da:

- Eman beharreko benetako irakaskuntza-ordutegien gehikuntza edo murrizketaren arabera, ikasturterako benetan matrikulatutako pertsonen arabera.

- Lesakako Udalak, bere aldetik, eman

*empresa Tobera Musika Iharduerak S.L. ha aportado el día 25 de septiembre de 2025, nº de registro de entrada 2899/2025, los documentos necesarios para la adjudicación del presente contrato.*

*Por unanimidad, el Pleno acuerda:*

*1.) Adjudicar a la empresa TOBERA MUSIKA IHARDUERAK S.L.L., el servicio de gestión de la Escuela de Música de Lesaka para el curso 2025/2026, por un importe de 172.708,92 euros (42,60 euros la hora), IVA excluido, por estar exento del pago de este impuesto por tratarse de materias incluidas en los planes de estudios del sistema educativo español, según su propuesta y de acuerdo con el pliego de condiciones aprobado en la sesión celebrada el día 31 de julio de 2025.*

*2.) Comunicar a TOBERA MUSIKA IHARDUERAK S.L.L., de acuerdo con el punto 5 del pliego, que dicho precio es provisional y que será definitivo antes del inicio del curso escolar, una vez se remita la propuesta de horas y disciplinas a impartir en función de los cambios en el número de alumnos matriculados del 1 al 11 de septiembre, para su revisión, valoración y aprobación. En consecuencia, la revisión del precio del contrato se realizará una vez finalizado el plazo de matriculación definitiva, tomando como referencia el 1 de octubre del curso, y se realizará de la siguiente manera:*

*- En función del incremento o reducción de los horarios reales de enseñanza a impartir, en función de las personas efectivamente matriculadas para el curso.*

*- De acuerdo con el acuerdo adoptado por*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

beharreko gaietan edo diziplinetan aldaketak egiteko hartutako erabakiaren arabera, betiere horren berri enpresa esleipendunari ematen bazaio.

*el Ayuntamiento de Lesaka, por su parte, para introducir cambios en los temas o disciplinas a impartir, siempre que se comunique a la empresa adjudicataria.*

3.) Enpresa esleipendunari jakinaraztea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan adierazitakoaren arabera, ez dela esleipenaren eraginkortasuna etenaldia aplikatuko, eskaintza bakarra aurkeztu delakoz.

*3.) Comunicar a la empresa adjudicataria que, de acuerdo con lo señalado en el artículo 101 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos, la eficacia de la adjudicación no queda suspendida al haberse presentado una única empresa, pudiendo continuar con la tramitación del procedimiento.*

4.) Kontratazioa Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 102. artikulua jarraituz, eta Udaleko web orrian.

*4.) Publicar la contratación en el Portal de Contratación de Navarra, conforme al artículo 102 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos, y en la página web del Ayuntamiento.*

5.) Alkate jaunari edo haren legezko ordezkariari ahalmena ematea kontratua sinatzeko.

*5.) Facultar al Sr. Alcalde o quien legalmente le sustituya, para la firma del contrato.*

6.) Esleipen hau Tobera Iharduerak S.L.L. eta udalaren kontu-hartzailetzari jakinaraztea.

*6.) Que se notifique la presente adjudicación a la empresa Tobera Iharduerak S.L.L. y la Intervención Municipal.*

**4.- BORTZIRIETAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO BATZAR OROKORREAN LESAKAKO UDALAK IZANEN DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Ikusirik:

- 2025eko uztailaren 22an Osoko Bilkurak egindako bileran aho batez erabaki zuela behin betiko onartzea Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea eta berdintasun arloko lankidetza hitzarmena bertan behera uztea, zein Hiri Hondakin Solidoak kudeatzeko Mankomunitatea eraldatu eta berregituratzea, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatea deiturikoan.

***4.- DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTES DEL AYUNTAMIENTO DE LESAKA EN LA ASAMBLEA GENERAL DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE BORTZIRIAK.***

*Visto:*

*- Que en la sesión que el Pleno del Ayuntamiento celebró el día 22 de julio de 2025 acordó por unanimidad la aprobación definitiva de la disolución de las Mancomunidades de Euskara y Servicios Sociales y de resolución del convenio de colaboración en materia de igualdad, así como la transformación y reestructuración de la Mancomunidad de gestión de Residuos Sólidos*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

-Erabakia 2025eko abuztuaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (162. zk.) argitaratu zela.

Kontuan hartuta Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen Estatutuetako 11. eta 12. artikuluek ezartzen dutela Berako Udalari 4 kide ordezkari dagozkiola Mankomunitatearen Batzar Orokorrean, Osoko Bilkuraren erabakiz izendatuta, dagozkien ordezkoekin batera, aho batez, erabaki du:

1.-Lesakako Udaleko honako zinegotzi hauek izendatzea Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko Batzar Orokorrean ordezkari gisa, bertako kide izateko:

-Ladis Satrustegui Alzugaray
-Eneko Fernandez Marichalar
-Uxue Royo Pozueta
-Pello Astiz Elverdin.

2-. Lesakako Udaleko zinegotzi hauek izendatzea Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko Batzar Orokorrean haren ordezko ordezkari izateko, bokal titularra ez dagoenean Batzar Nagusiko kideak ordezkatu ahal izateko:

-Argiñe Ordoki Urkixo
-Izaskun Rodriguez Marichalar
-Gabriel Txoperena Altzugarai
-Imanol Goienetxe Maritxalar.

*Urbanos en la denominada Mancomunidad de Servicios de Bortziriak.*

*- Que el acuerdo se publicó en el Boletín Oficial de Navarra número 162, de 14 de agosto de 2025.*

*Teniendo en cuenta que los artículos 11 y 12 de los Estatutos de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak establecen que al Ayuntamiento de Bera le corresponden 4 vocales representantes en la Asamblea General de la Mancomunidad, designados, junto a sus correspondientes suplentes, por acuerdo de Pleno, por unanimidad, se acuerda:*

*1.- Designar a las siguientes personas concejales del Ayuntamiento de Lesaka como representantes del mismo en la Asamblea General de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak para componer dicha Asamblea General como Vocales de la misma:*

*-Ladis Satrústegui Alzugaray*
*-Eneko Fernández Marichalar*
*-Uxue Royo Pozueta*
*-Pello Astiz Elverdin.*

*2.- Designar a las siguientes personas concejales del Ayuntamiento de Lesaka como representantes suplentes del mismo en la Asamblea General de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak para poder sustituir a las personas vocales de la Asamblea General en ausencia de la vocalía titular:*

*-Argiñe Ordoki Urkixo*
*-Izaskun Rodriguez Marichalar*
*-Gabriel Txoperena Altzugarai*
*-Imanol Goienetxe Maritxalar.*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

3.-Izendapen honek 2025eko abenduaren 31ra arteko ondorioak izanen ditu, eta Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitateko organoak eratzera mugatuko da, organo horiek 2026ko ekitaldiko aurrekontuak onartzeko administrazio-espedienteak izapidetzeko erabakiak, ekitaldi horri dagozkion zerga-ordenantzak eta dagokion plantilla organikoa hartu ahal izan ditzaten, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen jardueren hasiera 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera bermatu ahal izateko.

*3.- La presente designación se realiza, con efectos hasta el 31 de diciembre de 2025, limitada a la constitución de los órganos de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak que permita la adopción, por parte de los mismos, de los correspondientes acuerdos en la tramitación de los expedientes administrativos de aprobación de los presupuestos del ejercicio 2026, las ordenanzas fiscales correspondientes a dicho ejercicio y la plantilla orgánica correspondiente, para poder garantizar el inicio de las actividades de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak a partir del 1 de enero de 2026.*

4.-Izendapen honek, ahalmen osoz eta mugarik gabe, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen Estatutuetan jasotako epea izanen du.

*4.-La presente designación regirá, con plenas facultades y sin limitación, a partir del 1 de enero de 2026, por el periodo recogido en los Estatutos de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak.*

5.-Akordio hau jakinaraztea Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateari.

*5.-Notificar este acuerdo a la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak.*

**5.-MAGALA HAUR ESKOLAREN JANTOKI ZERBITZUA EMATEAGATIK PREZIO PUBLIKOAK: HASIERAKO ONESPENA.**

***5.-PRECIOS PÚBLICOS POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE COMEDOR EN LA ESCUELA INFANTIL MAGALA: APROBACIÓN INICIAL.***

Ikusirik Magala haur eskolan jantoki zerbitzua emateagatik prezio publikoak arautzen dituen araua.

*Vista la norma reguladora de los precios públicos por la prestación del servicio de comedor en la escuela infantil Magala.*

Ikusirik espedienteko Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailetzaren txostenak.

*Vistos los informes de Secretaría e Intervención obrantes en el expediente.*

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

*De conformidad al artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

1.) Magala haur eskolan jantoki zerbitzua emateagatik prezio publikoak arautzen dituen araua hasiera batez onartzea.

2.) Aipatutako ordenantza jendaurrean jartzea, Onarpen-erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakundearen iragarki-oholean iragarri ondoren, jendaurrean jarriko da, auzotar eta interesdun legitimoek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izateko gutxienez hogeita hamar eguneko epean. Bere kasuan, aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak ebaztea, Udalak behin betiko onartzea.Hala ere, hasierako onespenaren erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egin ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak izateko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, behin betiko testuarekin batera.

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*1.)Aprobar inicialmente la norma reguladora de los precios públicos por la prestación del servicio de comedor en la escuela infantil Magala.*

*2.) Someterla a información pública, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo mínimo de treinta días en que los vecinos e interesados legítimos podrán examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones. En su caso, la resolución de las reclamaciones, reparos u observaciones presentadas, y aprobación definitiva por el Pleno. No obstante, el acuerdo de aprobación inicial pasará a ser definitivo en el caso de que no se hubiesen formulado reclamaciones, reparos u observaciones. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, deberá publicarse tal circunstancia, junto con el texto definitivo, en el Boletín Oficial de Navarra.*

**6.- MARIA ALLUA TABERNA ANDREAK ESKATUTAKO BASO-APROBETXAMENDUA.**

2025eko irailaren 5ean (2679. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Maria Allua Taberna andreak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: akazi, haritz

***6.-APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR DOÑA MARÍA ALLUA TABERNA.***

*Examinada la instancia presentada con fecha 5 de septiembre de 2025 (entrada nº 2679 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:*

*1.) Tramitar ante el Servicio Forestal y Cinegético del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por doña María Allua Taberna para realizar una matarrasa de acacias, roble americano*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

amerikarra eta bidera erortzeko arriskuan dauden zuhaitzen matarrasa, Erreka-Aberas parajean. Katastroko 1. poligonoko 207. partzelaren zati bati dagokio.

*y árboles en riesgo de caída al camino en el paraje de Erreka-Aberas. Corresponde a una parte de la parcela 207 del polígono 1 del catastro*

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

*2.) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.*

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko du eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaie. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

*Para ello tendrá que constituir la fianza y la tasa establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza ni la tasa, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.*

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hark konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

*3.) Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento. En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.*

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

*4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.*

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunala ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-

*5.) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

eremuaren jabetzari buruz.

**7.-URRIAREN 15EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA.**

Uxue Royo Pozueta zinegotziak urriaren 15eko adierazpen instituzionalaren testua irakurri du. Bortziriëtako Berdintasun Zerbitzuak aurkeztu zuen 2025/09/19an, 2844/2025 erregistro-zenbakiarekin). Testu horren edukia honako hau da:

**"Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera.**

Nafarroako toki- eta lurralde-entitateak landa-eremuko herri guztiek osatzen dituzte, eta, horietatik guztietatik, bertan bizi diren emakumeen ahotsa entzutea nahi dugu, gure lurraldeen orainaldirako eta etorkizunerako ezinbestekoak izan direlako, eta izaten jarraitzen dutelako.

2025eko Landa Eremuko Emakumeen Egun honetan, erabakiak hartzeko haien lekua eskatzen dugu, politika publikoak diseinatzeko eta aplikatzeko moduak oraindik ere ez baititu aintzat hartzen haien errealitateak, beharrak eta ekarpenak. Landa eremuko herriak ez dira bigarren mailako tokiak, baizik eta emakumeak bizkarrezur dituzten ekosistemak. Ohartarazi dutenez, hirigunearen eta hirigunearen logikak eta logika patriarkalak, baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu hirietan, landa-eremukoak baztertuz, eta emakumeei bereziki eragiten dieten egiturazko desberdintasunak sortuz. Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta ikusten ez dena, ez da zaintzen.

Landa-eremuko emakumeek diskriminazio-modu

*la propiedad de la misma.*

***7.- APROBACIÓN DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE EL DÍA 15 DE OCTUBRE.***

*Se da lectura por la concejala doña Uxue Royo Pozueta del texto de la declaración institucional del día 15 de octubre (presentada por el Servicio de Igualdad de Bortziriak el día 19/09/2025, con nº de registro 2844/2025), siendo su contenido el siguiente:*

***"Mujeres rurales, del margen al centro de la política en Navarra.***

*Las entidades locales y territoriales de Navarra las forman todos los pueblos del medio rural y, desde todos ellos, queremos que se escuche la voz de las mujeres que lo habitan porque siempre han sido y siguen siendo imprescindibles para el presente y futuro de nuestros territorios.*

*En este Día de las Mujeres Rurales de 2025, reclamamos su lugar en la toma de decisiones ya que la forma en que se diseñan y aplican las políticas públicas sigue ignorando sus realidades, necesidades y aportaciones. Los pueblos rurales no son lugares de segunda, sino ecosistemas de los que las mujeres son la columna vertebral, y se advierte de que la lógica urbano-céntrica y patriarcal concentra recursos y servicios en las ciudades, relegando lo rural y generando desigualdades estructurales que afectan con especial dureza a las mujeres. Lo que no se nombra no existe, y lo que no se ve, no se cuida.*

*Las mujeres del medio rural enfrentan múltiples*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

askori egiten diete aurre: emakumeak izateagatik, herrietan bizitzeagatik, eta gurutzatzen diren beste aldagai batzuengatik (adina, klasea, jatorria, dibertsitate funtzionala, etab.). Horrez gain, bizi-baldintzak desberdinak eta zailagoak dira landaeremuan: enplegua, etxebizitza, garraioa... Gainera, ordaindu gabeko zaintza-lanen neurriz kanpoko gainkarga emakumeen gain geratzen da, eta bizitza- eta lan-aukerak, lidergoa eta parte-hartzea mugatzen ditu. Jakina, estereotipo patriarkalek ere badute beren zeregina: emakumeak herrietan "laguntzailetzat" hartzen dira, baina ez jabe, ekoizle, kudeatzaile edo buruzagi legitimoatzat.

*formas de discriminación: por ser mujeres, por vivir en pueblos y por otras variables que se entrecruzan (edad, clase, origen, diversidad funcional, etc.).*
*Eso se suma a que las condiciones de vida son distintas y más difíciles en el medio rural: empleo, vivienda, transporte... Además, la sobrecarga de trabajo de cuidados no remunerados recae de forma desproporcionada sobre las mujeres, limitando sus opciones de vida y trabajo, liderazgo y participación. Por supuesto, los estereotipos patriarcales también tienen su papel: las mujeres en los pueblos son consideradas "ayudantes o colaboradoras", pero no propietarias, productoras, gestoras o líderes legítimas.*

Nafarroako emakumeen % 28k unibertsitate-ikasketak ditu (gazteen artean % 46k), eta gizonen %20,1ek. Hala ere, emakumeen soldatak, batez beste, % 20 txikiagoak dira. Emakumeen % 9,4k lanbide zientifikoetan, teknikoetan edo espezializatuetan egiten du lan, eta % 6,1ek nekazaritzan. Horrek esan nahi du gaitasun-aniztasun handia dagoela eta talentu hori guztia aitortu eta erabat aprobetxatu behar dela. Hala ere, nekazaritza-ustiategietako titularren % 28 baino ez dira emakumeak, eta horietatik % 17 baino ez dira ustiategiko buru.

*A pesar de que el 28% de las mujeres en Navarra tienen estudios universitarios (46% entre las jóvenes) frente al 20,1% de los hombres, sus salarios son un 20% inferiores, de media. El 9,4% de las mujeres trabaja en profesiones científicas, técnicas o especializadas, y un 6,1% en la agricultura, lo que refleja una gran diversidad de capacidades y la necesidad de reconocer y aprovechar plenamente todo ese talento. Sin embargo, solo el 28% de las titulares de explotaciones agrarias son mujeres y, de ellas, apenas el 17% ejerce como jefa de explotación2.*

Herrietako emakumeen testuingurua zailtzen duten beste testuinguru batzuk ere badaude: landaeremuko maskulinizazioa, zahartzea eta despopulazioa emakumeentzako aukera faltarekin zuzenki lotuta daude, bereziki emakume gazteentzat. Eta indarkeria matxista herrietan badago, eta larriagotu egiten da isolamenduagatik eta baliabide publiko irisgarri eta espezifikoen faltagatik.

*Hay otras circunstancias que dificultan el contexto de las mujeres de los pueblos: la masculinización, el envejecimiento y la despoblación del medio rural están ligados a la falta de oportunidades para las mujeres, especialmente las jóvenes. Y la violencia machista en los pueblos existe y se agrava por el aislamiento y la falta de recursos públicos accesibles y específicos.*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Ildo horretan, Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea eta Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa, Landa Eremuko Emakumeen Estatutua sortzea aurreikusten dute, berau funtsezkoa izanik ekitatean aurrera egiteko, eta haien funtsezko zeregina aitortua izateko.

Argi dago politika publiko eta programa askok ez dituztela kontuan hartzen ez landa-ikuspegia, ezta genero-ikuspegia; hirietarako pentsatutako legeak, arauak edo ekimenak direlako, eta, horren ondorioz, garrantziarik gabekoak, eskasak eta askotan herrientzako kaltegarriak izan daitezke.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek, Landa Eremuko Emakumeen Egunean, premiazkoa eta beharrezkoa ikusten dugu helburu hauek lantzea:

1. **Eredu hiri-zentriko eta patriarkala gainditzea:** plangintza berriz pentsatzea lurralde-logika orekatu eta inklusibo batetik abiatuta, lurralde guztiak eta emakume guztiak Nafarroaren garapenaren funtsezko zati gisa aitortuko dituena.

2. **Politika publikoetan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea:** legeak genero-ikuspegiarekin diseinatzea eta abian jartzea, emakumeen herrietan iraunkortasuna eta autonomia izan dezaten bermatuz. Hori bereziki garrantzitsua da landa-eremuari, despopulazioari, berdintasunari, iraunkortasunari edo lurralde-kohesioari buruzko arauetan.

3. **Landa-eremuko emakumeak eta emakumeen elkarteak garapenaren eragiletzat aitortzea:** kulturan eta bizitza komunitarioan, elikadura-subiranotasunean, jakintzen transmisioan eta lan

*En este sentido, la Ley Foral 17/2019 de igualdad y el Plan Estratégico para la Igualdad en Navarra, que prevé la creación de un Estatuto de las Mujeres Rurales, son claves para avanzar en la equidad y el reconocimiento de su papel fundamental.*

*Es evidente que muchas políticas públicas y programas no tienen en cuenta ni la perspectiva rural ni el enfoque de género, por ser leyes, normas o iniciativas pensadas para contextos urbanos y eso hace que resulten irrelevantes, insuficientes o contraproducentes en los pueblos. Por ello, las entidades locales y territoriales de Navarra en el Día de las Mujeres Rurales vemos urgente y necesario trabajar en estos objetivos:*

*1. **Superar el modelo urbano-céntrico y patriarcal**: Repensar la planificación desde una lógica territorialmente equilibrada e inclusiva, que reconozca a todos los territorios y a todas las mujeres como parte esencial del desarrollo de Navarra.*

*2. **Incorporar el enfoque de género e interseccional a las políticas públicas:** diseñar y poner en marcha las leyes con perspectiva de género y rural, asegurando la permanencia y autonomía de las mujeres de los pueblos. Algo especialmente importante en las normas relativas al desarrollo rural, despoblación, la igualdad, la sostenibilidad o la cohesión territorial.*

*3. **Reconocer a las mujeres y asociaciones de mujeres rurales como agentes del desarrollo:** valorar su papel estratégico en la cultura y la vida comunitaria, la soberanía alimentaria, la*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

erreproduktiboan duten eginkizun estrategikoa baloratzea.

4. **Eskualde guztietan oinarrizko eskubideak bermatzea**: zerbitzu publiko egokituak eta kalitatezkoak (osasuna, hezkuntza, zaintzak, etxebizitza, konektibitatea, garraioa, kultura, parte-hartze politikoa), genero-indarkeriaren aurrean baliabide irisgarriak barnebilduz.

5. **Landa eremuan modu bidezkoan inbertitzea:** ezinbestekoa da landa-eremuak behar bezala finantzatzea. Berdintasunaz hitz egitea ez da nahikoa: sustatu egin behar da, herri bakoitzean, erabaki bakoitzean, aurrekontu bakoitzean.

Eta hori guztia agenda feministarekiko eta landa-agendarekiko konpromisotik abiatuta, lurralde bakoitzaren errealitatearen arabera. Izan ere, eredu urbano-zentrikoa gainditzea eta generoikuspegiarekin gainditzea demokraziaren, justiziaren eta etorkizunaren kontua da. Emakumerik gabe ez dagoelako landa-eremurik, eta landa-eremurik gabe ez dagoelako etorkizunik."

Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki du:

1.) Urriaren 15eko adierazpen instituzionala onartzea.

2.) Akordio hau Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea.

**8.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda, 393/2025 ebazpenetik 533/2025 ebazpena arte. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie,

*transmisión de saberes y el trabajo tanto reproductivo como productivo.*

*4. **Garantizar derechos básicos en todos los territorios:** Servicios públicos adaptados y de calidad (salud, educación, cuidados, vivienda, conectividad, transporte, cultura, participación política), incluyendo recursos accesibles frente a la violencia de género.*

*5. **Invertir de forma justa en los territorios rurales:** es imprescindible que las zonas rurales sean financiadas adecuadamente. Hablar de igualdad no es suficiente: hay que fomentarla, en cada pueblo, en cada decisión, en cada presupuesto.*

*Y todo ello desde el compromiso con una agenda feminista y rural, de acuerdo a la realidad de cada territorio. Porque superar el modelo urbano-céntrico y hacerlo con perspectiva de género es una cuestión de democracia, justicia y futuro. Sin mujeres no hay rural, y sin rural no hay futuro."*

*Por unanimidad, se acuerda:*

*1.) Aprobar la declaración institucional del día 15 de octubre.*

*2.) Notificar este acuerdo al Servicio de Igualdad de Bortziriak.*

***8.-CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.***

*Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy, desde la nº 393/2025 hasta la nº 533/2025. A los que no lo tienen, se les deja*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

bakoitzari dagokion erretiluan.

*una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.*

**9.-OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. ESKARI ETA GALDERAK.**

Ez dira izan.

***9.-ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.***

*No se formulan*

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamabost minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

*Siendo las diecinueve horas y quince minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.*

44561288F LADIS SATRUSTEGUI (R: P3115200B)

Firmado digitalmente por 44561288F LADIS SATRUSTEGUI (R: P3115200B)

18210359V MARIA JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)

Firmado digitalmente por 18210359V MARIA JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)